

Nafarkaria

• ostirala • 1998ko maiatzaren 8a

Egunkaria

Gehigarri honetan



Baztan • EKBren autobus ibiltariak Nafarroako euskararen egoera erakutsiko du.

Jose Angel Perez Nieves • «Nostalgikoak baino gehiago, kixoteak gara».



MIKEL SAIZ


Iruñeko Euskal Jaik lau urte

Iruñeko Alde Zaharreko Euskal Jai Gaztetxeak lau urte bete berri ditu. Gaztetxea kozkortu da. Eraikina zaharberitzeko oraindik asko geratzen zaie gaztetxekoei, baina pozik dira lortutakoarekin. Hainbat ekitaldi antolatzeaz gain, jantokia eta taberna dute. Dena den, proiektu esanguratsuena pilotalekua zaharberitzea dute.

Baztan • Euskara autobusean

EKBren autobus ibiltariak euskararen egoera erakutsiko du Nafarroan

Datorren larunbatean EKBk martxan jarriko du Nafarroako euskararen egoera erakusten duen autobusa. Mendialde eta erdialdeko hainbat herritan ibiliko da ia-ia hilabete batez.



tzaileak. Bideoa ez da erreportaia bat izango, film labur bat baizik. Bideoa ekoizten Txema Zubizarreta ibili da, AEKrao makina bat bideo egindakoa bera.

Bideoan, halaber, hainbat pertsona ezagun ageri dira, nafarrak guztiak ere. Bertzeak bertze, Patxi Zabaleta idazle, politikari eta abokatua eta Gorka Ovejero NUPEko Euskara Unibertsitatera plataformako kidea azalduko dira. Irudi guztiak Bortzirietan eta Iruñerrian hartu dituzte, eta martxo-apiriletan grabatu zuten bideoa. «Bideoa ez ezik, autobusean hainbat panel ikusi ahal izanen dira. UEMAko herriak, Euskal Herriko euskalkiak, Nafarroako euskarazko herri aldizka-

riak, telebistak eta irratiak, UEMA sartzeko bete beharreko baldintzak eta euskararen inguruko galdera joko bat egonen dira», argitu du Otaegik.

Autobusa datorren asteko larunbatean, maiatzaren 16an, jarriko da abian Baztanen. Erratzu, Elizondo, Mugaire eta Iruritan ibiliko da. Astebete geroago, 23an, Bera eta Lesakara joanen da, eta 24an Arantzan egonen da, UEMA eguneko ospakizuntan. Altsasura maiatzaren 28an iritsiko da, eta oraindik finkatu gabe dauden egun batzuetan Burlatan eta Berriozarren izanen da aste horretan bertan, herri bakoitzean bi egunez. Ondoren, Leitzara joanen da (ekainaren

2an), Doneztebe, Sunbilla eta Saldiasera (ekainaren 20ean), eta Ultzama-Larraunen eta Irurtzun eta Etxarri-Aranatzen ere izanen da, oraindik zehaztu gabeko egunetan.

Herritar guztiei zabalik egongo dira bisitak, baina zenbait herritan bereziki ikastetxeetako jendearentzat egonen dira, nahiz eta gainerako herritarrek ere bisitatu ahal izanen duten. Berriozarren, Leitza, Burlatan eta Altsasun ikastetxeetako gazteak hurbilduko dira. Autobusa antolatzerakoan bisitatuko dituen herrietako euskara zerbitzuen laguntza jaso du EKBk.

→ Jon Abril

Sakana

X. Martxa Handia eginen da igandean

SAKANAKO MARTXA HANDIA etzi abiatuko da goizaldeko 6:00etan Irurtzongo enparantzatik. Iratxo Elkarteak hamargarren urtez antolatu duen mendi ibilaldian 200 mendigoizale inguruk parte hartuko dute. Aurten, gainera, hasierako urteetako ibilbide luzea eginen da, kasik 40 kilometrokoa, hain zuzen ere. Irurtzundik abiatuta gaitu beharreko hiru igoera gogor izanen dituzte: Txurregi, San Miguel eta Larrazpil. Batez beste 3.500 metroko desnibela dute mendiok. Antolatzailerak ibilbidea egiteko aurreikusten duten denbora hamaika ordukoa da. Berez, eguraldiak laguntzen badu, lehenengo mendigoizaleak arratsaldeko 17:00ak aldera Irurtzuna berrituko bueltan iristea espero dute.

Ibilaldia, lehenengo aldiz, 1988an antolatu zuen Iratxo Elkarteak. Hasierako laupabost urteetan egindako ibilbide bera eginen dute etziko mendi irteeran. Irurtzundik aterata hainbat paraje zeharkatu dituzte: Izurdiaga, Urritzola, Txurri-ge, Satrustegiko mendizerra, Arakil-Uharte, Aralar, Mikel Deuna, Ata bailara, Madotz, Goldaratz, Larrazpil eta Etxeberri. Dagoeneko, Sakana eta Nafarroako mendigoizaleez landa, Gipuzkoa, Bizkaia eta Errioxatik parte hartze-ko izena eman dute. Ibilbide guztia aurrez markatua egonen da eta DYAKo langileak egonen dira ibilbidean. Bestalde, partehartzaileek jan eta edateko hiru toki izanen dituzte: Arakil-Uharte, Aralar eta Madotz.

→ Amaia Amilibia

muga enea

MIKEL REPARAZ



Turismo partzuergoak kontratatu zuen Patxi, praktiketan eta gaueko txandan. Erronkari beti izan zuen gustoko, Pirinioak eta gailurretako haize urdina! Iruñean Turismo ikasketak hasi zituenetik, beti izan zuen buruan Erronkari. Ikaskideek Egipto, Nepal eta Tazaniarekin amets egiten zuten bitartean, Patxi Belagua eta Izaba zituen gogoan. Eta azkenean, prekarietatearen eta gaueko ordutegiak kaxkarrenaren morroi izanik ere, ametsa errealtate bihurtu zitzaion. Turismo partzuergoak Erronkariko ibarrera deitu zuen. «Landa turismoa sustatzeko publizitate kanpaina erraldoian parte hartzeraz». Patxi bere zorronean ezin kabiturik zegoen eskaintza jaso zuenetik.

Hartza Erronkarin

Pirinioetako hartz arrearen inguruan dokumentazio anitz irakurri, azpimarratu eta buruz ikasi behar izan zuen, lanean hasi aurretik. Hartzaren elikadura, ohitura sexualak, bizitokiak eta aztarna eta gorotzen identifikazioa, dena estudiarazi zioten. Eta Patxi gogoz ikasi zuen hura guztia, gogoz eta harriduraz. Mundu guztiak baitzekien Erronkarin aspaldi desagertu zela hartz, gizakiaren gorroto atabikoa medio. «Kontratua sinatu berri duk, ez galderarik egin gero», esan zion bere buruari.

Lanera joan zen lehen gauean bokata eta kafe termoa eraman zituen motxilan. Baña ez zituen behar izan. Izan ere, hartzek ez baitute kaferik edaten. Horixe da ugazabak esan ziona, Patxi bere lanpostu berrian erabiliko zuen moztorra boltsatik atera-

tzen zuen bitartean. «Hartzak bezala pentsa behar duk, neguko kuluxkatik esnatu berria den hartz gogoz bezala, badakik», esan zion ugazabak. Ondoren, Uztarrozeko oihanean askatu zuen Patxi, lane-rako moztorroaz jantziarik.

Adituek egunkarietan Pirinioetako hartzari egotzi diote Uztarrozeko bordako sarraskia. 80 kilo inguruko hartz omen da, hogeitaz urtekoa, eta ausaz negu partean lotan izan dena. Ez dute asmatu, ordea, horrez gain prekarietatearen biktima ere badela gijazoa. Publizitate kanpaina abian da, eta Erronkariko artzainei pazientzia agortu bitartean iraunen du. Artean, badakite: hildako ardi bakoitzeko 30.000 pezetako dirulaguntza jaso eta Patxi bakea eman. Hartzak aspaldi desagertu baitziren Erronkarin.

Lizarra

'Kixote'-ren erakusketa zabalik

FRAY DIEGO KULTUR ETXEAN Miguel Cervantes idazlearen *Kixote* eleberraren hainbat pasarte biltzen dituen margo erakusketa zabaldu berri dute. Orotara 19 koadro biltzen ditu erakusketak, eta lan bakoitzak testu adierazgarri bat darma ondoan. Idatziek Cervantesen liburuaren pasarte ezagunenak jasotzen dituzte, gaztelaniaz zein euskaraz. Euskarazko testuak Pedro Maria Berrondo lasartearrak itzulitako eta Itxaropena argitaletxeak plazaratutako euskarazko lehen itzulpenetik hartutakoak dira. Gaztelaniazkoak, berriz, Cervantesek berak idatzitakoak dira. Margolanak, bestalde, Jose Ramon Sanchez artistarenak dira. Sanchez aski ezaguna da horrelako lanetan. Marrazki bizidunak eta haur liburuetakako irudiak egiten asko ibilia, 120 liburu baino gehiago irudikatu ditu, jadanik. Marrazkigileak egindako artelanak kolore bizikoak dira. *Kixote* liburuaren pertsonaia nagusiak jasotzeaz gain, zaldun xelebrearen hainbat pasarte kontatzen ditu. Erakusketan aurkitu daitezke errotak eta erraldoiak, Claviteroren hegaldia, zaldunen liburuak erretzen diren unea, Camachoko ezteiak edota liburuaren protagonistaren heriotza ere. Finean, erakusketak, Cervantesen lanik interesgarrienak modu arinago batean ezagutzeko aukera eskaintzen du. Erakusketa hilaren 30 arte egonen da zabalik, 18:30etatik 20:30etara.

→ Kristina Berasain

Iruñea • Iturramak euskarazko antzezlan berria du

Gazte Antzerki Taldeen Topaketetan ariko da bihar

Iturramako Institutuko Antzerki Tailerrak parte hartuko du Gazte Antzerki Taldeen Topaketetan. Hamalau talde ariko dira, eta Iturramakoa da euskaraz ariko den bakarra.



Iturramako Antzerki Tailerra gaurko lana prestatzen.

• MIKEL SAIZ

AURTEN IRUÑERRIAN HELDUENTZAKO euskarazko lanik duen talde bakarra izanen da Iturramako Institutuko Tailerra. Badira zazpi urte taldea sortu zela. Aurtengo ikasturterako *Hemen ez du inork ere ordainduko* prestatu dute. Lana Dario Fo Literatur Nobel saria jaso duen antzerkigile italiarrarena da.

Aurten euskarazko antzezlan taularatuko duten arren, lanean hasi zirenetik gaztelaniaz zein euskaraz aritu dira zazpi urteotan. Lehen urtean gaztelaniazko lan bat egin zuten, artean institutua elebiduna zelarik: Oscar Wilderen *La importancia de llamarse Ernesto*. Baina hurrengo ikasturtean euskarazko batekin ausartu ziren: Jon Etxaideren *Markes baten alaba* aukeratu zuten.

1997-98ko ikasturteko taldea ikastetxeko hamahiru ikasle eta Reyes Ilintxeta zuzendariak osatzen dute. Ikastetxeak lagundu die beharrezko tresneria eta

azpiegitura egokia lortzen. Aretoa moldatu dute, eta soinu eta argi ekipoa erosten ari dira.

Estrenaldia apirilaren 27an egin zuten Iturrama Institutuan. Orain berriz, Nafarroako Gobernuak antolatutako Antzerki Taldeen Topaketetan parte hartuko dute eta ondoren, Beran urtero antolatzen duten Mugaz Gaindi topaketetan ere izanen dira.

Reyes Ilintxeta zuzendariak dioenez, «ikasturte bukaera gertu dugu eta ez dugu emanaldi gehiegi izan nahi. Baina baliteke hurrengo ikasturtearen hasieran emanaldiren bat eskaintzea».

Diez de Ultzurrunek itzulitako lana

Hemen ez du inork ere ordainduko Kike Diez de Ultzurrun kazetari eta itzultzaileak itzuli du. Foren lana Italian krisi ekonomikoa puri-purian dagoen garaian kokatzen da. Emakume talde batek, Anttoni buru dutela, dendetako gehiegizko salneurriekin amaitzea erabakitzen du. Lan arazoak tarteko, ordura arte gizartearen gehiengoak zituen oinarri sendoak apurtzen joanen dira krisia dela eta.

→ Irene Arrizurieta

herri aldizkariak

Edume Elizondo

Aralarko sartutegiari buruz

San Migel santutegiari eskaini dio **Guaixe** hilabetekariak bere azken zenbakiko erreportaia, eliza berritzeko lanak bukatu direla aitzakitzat hartuz. «Sakana airetik ikusteko leku aparta da San Migelgo santutegia eta bere ingurunea. Bertara joateak, hala ere, gogoeta franko ekar ditzake burura; izan ere, leku honek historia zabala baitu». **Guaixe**-koek, besteak, beste, kofradia, San Migel eta burutu berri diren obrak bezalako gaiak izan dituzte aipagai, «Principe de Viana erakundeak 80 milioi eman dizkio elizari san Migelgo santutegia konpontzeko, San Migel

momumentu historikoa delako. Diru honekin teilatua berritu, beheko zorua aldatu eta berogailua sartu dute santutegian. Teilatuak 27-28 urte inguru zituen baina oso gaizki zegoen eta hori dela eta ura sartzen zen. Teilatu zahar dena kendu dute eta berri bat jarri dute. Denbora luzean ez da ur gehiago sartuko santutegian. Beheko zorua egurrezkoa zen, eta uraren eraginez erdi usteldua zegoen. Dena berritu dute. Gainera zoru honen azpian berogailua sartu dute. Orain arte ez zegoen berogailurik santutegian eta neguan zehar San Mige-

lera meza entzutera etortzen zirenak izozturik ateratzen ziren elizatik. Instalakuntza elektrikoa ere berritu dute», aipatzen du **Guaixe**-k berritze lanei buruz.

Santutegiko apaiz Inocencio Aierbe ere izan du **Guaixe**-k aipagai: «42 urte darma Inocenciok San Migelen apaiz lanak egiten. Eliza eramateaz gain, San Migelgo historia eta artea ongi ikasi ditu Uharte-Arakilgo apaiz honek. Santutegiak bisitari ugari dituela aitortu digu Inocenciok, baina bisitari batzuk aipatzekotan *giputxiak* aipatzen ditu apaizak».

Bidaiari ahantzia

Picassoren *Aviñongo andereñoak* koadroa (eta originala bezala aurkeztua) Titanic pelikulan agertzen da. Untziarekin batera urperatzen da gainera. Gezurra dena. Inork gutxi daki orde euskaldun dirudun bat Titanic-ekin batera hondoratu zela ere; bere izena: Teodoro Salvador Agirreurreta. Gizon honen bizitza erabat noblezkoa izandu zen. Gernikan jai eta iparraldeko itsaso beltz eta hotzean hil arte mundu osoa zeharkatu zuen, lan eta ofizio guztiak beharrezko beharrez betez: esate baterako tabernaria, portuko estibadoreen kapataza eta Galeseko meategietan eraikuntzetako ardurduna izan zen. Arkitekto bezala, Tomas Kembrig Venetziako portuko berritzailearekin laguntzaile aritu ondoren, bere lan propioak burutu zituen oraindik ere zutik mantentzen diren Indiako zubi eta eraikuntza ofizial mordoetan. Han aberastu omen zuten ingelesek eta handik aurrera errentetaz eroso bizi izan zen, soltero beti, Titanic untziko txartela erosi zuen arte. Molde hontako gizonek heriotzaren aurrean bere maila erakutsi zuen ere: testigu askok azpimarratu zuten moduan lehen klaseko saloia- ren mahaitxo baten aurrean eseri, eta bere azken borondateak idazten eman zuen azken ordu hura. Ondotik, dakigunez, Mattias Whalfger ofizial norbegierrari eman zizkion bere bizitza guztian ibilitako eta berak idatzitako egunerokoa gehituz. Tamalez ez liburu, ezta bere azken borondatea ere, ez ziren Gernikara sekulan ailegatu. Jakin izan dugun gauza bakarra Sothebys etxeak enkantetara atera eta «serbo-kroatat idatzitako» testu bat bezala saldu izan zela da. Erosleaz ez dakigu deus. Liburuaren paraderoaz ezta ere. Hor nonbait egongo da armario zahar batean lotan. Segurasko eroslearen ondorengo ezjakintasunean lotan ere. Norbaitek Euskal kulturarako iratzarriko balu! Armario hori ireki eta Teodororen liburu aurkitzen duenari belaunikaturiko mezu soil bat: mesedez. Dei nazazu. Nik liburu eder bat egingo nuke testu horrekin. Durangon asko salduko zena. Etzazu Koldo Izagirre deitu, arren, berak izan zuen jada bere Battiren deia.



ur dai aren mintzoa

Xabier Larraburu



Gaztetxoa kozkortu da

Iruñeko Alde Zaharrean dagoen Euskal Jai Gaztetxeak lau urte bete zituen atzo

Iruñeko Euskal Jai Gaztetxeak lau urte bete zituen atzo. Alde Zaharreko San Agustin kalean kokatua, hasierako gora-beherak ahaztuta, aurrera jarraitzen du arian ariz. Bertako asanbladaren ustez, inoiz baino indartsuago. Egiteko «nahi adina» dagoen arren, edonori zabalduko gunea egiteko asmoa gauzatzen ari omen da.

IRUÑEKO EUSKAL JAI PILOALEKUA ZAHARREAN kokatzen den gaztetxea kozkortu da. Iruñeko Gazte Asanbladak (IGA) udaberriaren etorrerarekin batera okupatu zuen San Agustin kalean dagoen eraikina. Lau urte joan dira, eta ez alferrik, hasieran ustea izan zena errealitate bilakatu baita. Dena den, bidea ez da erraza izan duela lau urte pilotalekua hartu zutenentzako. Eraikinean sartu eta handik egun gutxira Polizia Nazionala bertan zeuden kanporatzen saiatu zen. Ahaleginak egin arren, ez zuten lortu. Hemezortzi lagun teilatura igo ziren eta han igaro zuten gaua. Hura izan zen guztiaren hasiera. Polizia Nazionalak ahaleginak egin arren, han geratu ziren, eta gaur arte. Izan zuten jaiotza istilutsua ahaztu ez badute ere, udaberriko lore jaiotza berrien ilusioari lau urteotan egindako lana gehitu nahi diote.

Asanbladan bilduta luze mintzatu dira egindakoaz eta etorkizunaz. «Proiektu bezala gaztetxeak lau urte bete ditu. Gauza guztiak bezala prozesu bat da. Funtsezko zena: autokudeaketa eta asanbladan funtzionatzea mantendu da eta jarraitzen du. Egunez egun egiten joan gara» diote IGAkoek. Gaztetxeke partaiden ustez, gauza asko aldatu

dira lau urteotan. «Prozesua onerako dira, aurrerantz egin dugu. Izan dira une zailak, okupatu berri zenean Polizia Nazionala agertu zenekoa, kasu», diote. Lehenengo bultzada pasatuta, egunez egun egin den Gaztetxe izan da Euskal Jai.

Zaharberitze lan handia

Gazte Asanbladako ideak aurri egoeran zegoen 2.200 metroko eraikina okupatu zuten. Teilatuak estalkirik gabe eta egitura erortzen zegoen. Pilotalekuko hiru solairuak eta ganbara ere oso gaizki zeuden. Hala ere, IGAkoek lanari ekin zioten eta zaharberitze lan handia egin eta gero, egunez egun txukunagoa dagoen Gaztetxea lortu dute. «Eraikina oso handia da. Gune guztiak guk egin ditugu eta horrek sekulako lana suposatzen du. Momentu batzuetan Gaztetxera sar-tzea lana zen. Ez zegoen tokirik lasai egoteko edo ekitaldiak antolatzeke», gogoratu dute. Sanferminetako tabernan eta kontzertuekin ateratako diruarekin moldatzen ahalegintzen ari dira.

Neketsua izan da lana, baina lehenago aisialdi-rako edo ekitaldiak egiteko gunerik ez zuten eta orain toki asko dituzte. Behekaldean Lapiku jan-tokia, taberna eta sukaldea egin dituzte. Ideia

Iruñeko Alde Zaharrean dagoen Euskal Jai Gaztetxearen arian ariz den irudi bat MIKEL SAIZ

«Zure esan egindakoak asko kon- dira, eta batetik ezin diran. Poliki- ibiltzen joan da. Ez inoiz laguntza hori ere behar

Udalaren proposamena geldirik

Iruñeko Alde Zaharrean dagoen pilotalekua hamar bazkidek osatzen duten Euskal Jai Berri Elkartearena da. Okupatu zutenetik Polizia Nazionala hiritan saiatu da GIAkoek ateratzen, baina alferrik. Indarrez botatzen ez zituztela ikusirik, UPN alderdiak proposamen bat aurkeztu zuen joan den udazkenean udalbatzarrean, eta onartu egin zen PSN, CDN, IU eta UPNko 23 botoekin. HBko zinegotziak abstenitu egin ziren. UPNk Euskal Jai pilotalekua kirol eremu bezala berreskuratzeko behar ziren bide guztiak hasteko eskatzen zion Udalarari. Baina onartutako mozioak ez du aurrera jarraitu eta geroztik Udalak ez du deus egin.

IGAkoen ustez, proposamena UPN-ren kasketan bat besterik ez zen izan. Bestalde, Iruñeko Udalean gehiengo duen hirukoak (PSN, CDN eta IU-EB) ez du printzipioz abenduan onartuko di-

ren aurrekontuetan dirurik aurreikus-ten proiektuarentzako. Beraz, hurrengo legeitzaldira pasatuko den gaia izanen da, eta Udalak zerbait egin nahi izanez gero bidea luzea izanen da. Des-jabetze espedienteak ireki beharko du eta Euskal Jai Berri Elkarteari erosi. Gero, zehaztu gabe dagoen proiektu bat egiten hasteko. Dena den, Gaztetxe-koak ez dira fio. «Bidea zabaldu dute, eta datorren urtean gerta daiteke horretan hastea. Gainera, ez dugu ahaztu behar Antsuategi gobernadore zibila eta Poli-zia Nazionala hor daudela. Batetik, Udalak hasitako bidea dago, eta, beste-tik, Estatuak hartutakoak», azaldu dute. Iritzi berekoa da Koldo Lakasta, HBko bozeramailea Iruñeko Udalean. Hu-rrengo legeitzaldian Udalean nor sar-tzen den dago guztia, haren ustez. «UPNren jarrera argia izan da. Alfredo Jaime alkateak bota egin nahi izan zi-

tuen eta berriro UPN sartuko balitz al-katetzan jarrera bera mantenduko li-tzateke. Hirukoak errepikatzen badu, auskalo. Ez du lehenetsuntzat Euskal Jai frontoia». Lakastaren iritziz, Gazte-txearen proiektuan auzokideek eta Alde Zaharreko talde guztiak egin behar du-te lan. «Defendatu behar den ideia da Trinketek mahaigaineratu duena da: lan egin Gaztetxea errealitate bilakatzeko, teoriatik praktikara iraganez».

HBko zinegotziaren usteetan, guztiok ados daude Gaztetxearekin, baina au-zokide guztiak erabili behar lukete, eta kirol eremu ireki bezala berreskuratu behar da. «Alde Zaharrean ez dago kirol instalaziorik, eta ez badugu elkar har-tzen bota eginen dute. Baliabide ekono-miko handiak eta auzolana eskatzen duen lana da. Auzokideak sartzea era-gozten duen harresi ikustezina bota be-har dugu», amaitu du.

duela hiru urte sortu zen. Kooperatiba bat egin ondoren, azken bi urteetan Burlatako baratza biologikoetatik ekarritako uztarekin, jatetxe begetarianoa jarri dute, eta taberna ere hor sartu dute. Igandetan izan ezik, 600 pezetan egin daiteke otordua (24 libera). Taberna, berriz, egunero dute zabalik. Hamar lagunengatik dago taberna eta jatetxea. Lehenengo solairua eraiki-nean erabat berritua dagoen zati bakarra da. Bertan egiten dira: Eguzki Bideoak taldearen zinema emanaldiak, hitzaldiak eta bilera handiak. Bigarrena bukatu gabea dago oraindik, baina jadanik serigrafia eta argazkigintza tailerrak egiteko gelak moldatzen ari dira materiala lortu bidenabar. Ganbara, berriz, behar izanez gero, gaua pasatzeko erabiltzen dute.

Pilotalekua suspertzeko: Trinkete taldea

Nafarroako hiriburuko Euskal Jai Berri Gazte-txearen ekitaldiak eta mugimendua falta ez diren arren, asko dute egiteko. Lana, batez ere, frontoia berreskuratzeko ematen die. Horretaz ohar-turik sortu zen Trinkete taldea. Gaztetxe-ko Asanbladarekin koordinatzen bada ere, era autonomoan funtzionatzen du. Helburu argia du taldeak: Euskal Jai pilotalekua zaharberritu ez ezik, suspertu nahi du. Horretarako frontoia egokitu behar da eta kirol ekitaldiak prestatu. Ez da lan makala egiten ari direna, pilotalekuak 1.800 metro koadro ditu eta. Joan den urteko udan erdia baino gehixeago estali zen, 600 metro koadro inguru. Orain frontoiko pareten margo zaharra kentzen dhardu taldeak. Zegoen pintura kendu-ta, hemendik hamabost egunera margo-tzen hasteko asmoa dute. Margotzeaz gain, kontraktantxan porlana botako dute aurki. Euskal Herriko frontoirik luzeena dela aintzat hartuz, kantxarekin zer egin ez dakitela dabilta. «Frontoia lana izugarria da. Lana ez da margotzea baka-rrik. Ongi egokitu behar da, eserlekuak eta babesteko hesia jarri behar zaizkio, aldagelak, duxak pilotan edo beste kirol batzuetan aritzeko. Eta behin egokituz gero, nahi adina proiektu gauzatu dai-tezke», dio Julio, Trinkete taldeko par-taideak. Trinketekoen irudikoz, «hamai-ka gauza» egin daitezke. «Ez kirol ekin-tzak bakarrik. Lana ez da zaharberitzea soilik, ondoren dinamizatu egin behar da», gaineratu dute.

Auzokide guztiei irekia

Laugarren urteurema dela eta, gaztetxea «topagune eta mota guztietako ekitaldi eta erreibindikazio gune» moduan aldarrikatu dute IGAkoek Gazte-txea. Bertan lanean ari direnen aburuz, Gaztetxearen egungo egoera ona da. «Goranzko bolada batean gaude. Egon-kortasuna lortu dugu eta eta goiti goaz. Prozesu baten baitan aurrera goaz, oreka batean proiektuak egiten goaz. Gainera, gero eta jende gehiago hurbiltzen ari da», diote bakoitza.

Dena den, ez dira denak iritzi berekoak, auzokide bat baino gehiago kezatu delako bertako za-rataz. «Kexak izan ditugu kontzertuak direla eta. Gure jarrera irekia da eta ara-zoa konpondu nahi dugu. Momentuz kon-tzertuak bukatu dira, hotsgabetzea luzerako do-an proiektua delako», azaldu dute.

Zarataz gain, IGAko kideei behin baino gehia-

gotan aurpegiatu zaie Gaztetxea ez dagoela irekia guztiontzako eta gehiago zabaldu beharko luketela. Eurek, berriz, ez daude ados iritzia-kin, eta auzoko jendea Gaztetxera gehiago hur-bildu beharko litzatekeela uste dute. «Ireki behar dena auzoko jendea da. Hau ez dago itxia eta beharrezkoa da jendea agertzea. Irekia dago-en jendea etortzea». Hasieran Polizia Nazionala-ren presioa zela eta itxirik izan bazuten ere, gaur egun itxia dagoela esatea ez dela bidezkoa diote. «Zure eskuekin egindako gauzak asko kostatzen dira eta egun batetik bestera ezin diru aldatu. Poliki-poliki ibiltzen joan behar da. Ez dugu inolako laguntzarik, eta hori ere baloratu behar da», azpimarratu dute.

Onartzen dute jendeari Gaztetxera hurbiltzea kostatu egiten zaiola, baina Alde Zaharreko beste gune bat bezala onartua dagoela diote. «Hemen gaude eta gauzak egiten ari gara. Bartzuk gustura daude egiten ditugun gauzekin eta beste batzuk ez». Nolanahi ere, ez zaie bidezkoa iruditzen dena euren esku uztea. «Taldea etortzen dira gauzak egitera, baina faltan botatzen dute dela horiek gero Gaztetxearen dima-mikan ez sartzea. Gehiago bagina, gauzak egite-ko eta gauza horiek nola egin behar ditugun lan-tzeko askoz hobeto ibiliko ginatke. Ideiez gain, horiek gauzatzeko eskuak behar ditugu», gaine-ratu dute. Hori dela eta, laugarren urteurrene-ko ospakizunetan ez ezik, Gaztetxea kaletarrei ezagutzen eginen dute biharko eguna. Beste ekitaldi batzuren artean, Gaztetxera bisitaldi turistikoa antolatu dute bihar 18:00etan.

«Jende asko ez da ausartzen hona sar-tzen. Beldurgarriak garela diote eta ez gaituzte ezagutzen. Beraz, zain-tzuk garen eta zertan gabilgan erakutsi behar dugu», esan dute irribarretsu.

Orain arian ariz dabilta eta ez dute etorkizuneari gehiegi pentsatu nahi. «Egu-nez egun bizi gara. Baditu-gu proiektuak eta horiek egiten goaz, baina hemen zenbat iraunen dugun ez dugu pentsatzen. Gaztetxe-ko kideen irudikoz, Iruñeko herriaren esku dago proiektua. «Gure esku eta guztion esku, gaz-tetxea beharrezko ikusten dugun heinean. Beharra ikusten dugun neu-rrian, gehiago lan eginen dugu eta horre-tan dago gako», bukatu dute.

→ Irene Arrizurieta



Jantokia, igandean izan ezik, egunero irekitzen dute. MIKEL SAIZ

Klasiko bitxi • arront klasiko

Joxemiel Bidador

Gerhard Bähr: Alemaniako euskalari gipuzkoarra

Udanan 1900.eko maiatzaren 6an jaio zen ikerlari alemaniar honek, euskara iberiar hizkuntzarekin lotzen zuen tesiaren arrazoiak indargabetu zituen bere lanik funtsgarrienean, *Baskisch und iberisch* deiturikoan alegia.



EZ DIRA GUTXI IZAN GEURE HIZKUNTZAZ kezkatu diren germaniarrak; Humboldtengandik hasita, hortxe dugu Stempf-en lana edota Schuchardtena. Gaurkoan Gerhard Bähr-en ekarriaz ihardungo dugu, betiere interesgarria ezeze baita jakin beharreko horietakoa delako segurtamen osoan. Sortzez ez zen kanpotarra, euskalduna baizik, baina, eta euskara gogotik maitatzen zuela ukatu barik, alemaniarren jo behar dugu, halaxe hezi eta halaxe iraun baitzuen bere bizitza osoan zehar. Legazpi aldeko Udana auzoan sortu zen Gerhard Bähr 1900.eko maiatzaren 6an. Aita, Arantzazutik hurren samar zeuden Kataberako meatokien zuzendaria zen. Nahiz lehenbiziko ikasketak Brinkolako eskolatan burutu zituen, lehen baino lehena etxean ikasi zuen Alemaniako irakasle partikularrekin. Gazte oraino, 1913.ean Alemaniari buruz joan zen ikasketa ertainak egitera. 1918.ean gurasoak Olaberrin bizi ziren, gerrate handiaren oihartzunek udanarrak berotu baitzituzten. Bärtarrak auzotik egotzerainoko. Alabaina, orduan izan zen Gerhard euskara ikasten hasi zenean, bada, txikerrago zela ezer gutxi jabetu ez baitzen. Alabaina, ez dirudi arazo haundiegirik izan zuten euskeraren ongi atxekitzeko, izan ere, poliglota haurta baitzen, eta 15 hizkuntza ikastera iritsi zen, azkena errusiera zelarik. Edozein modutan ere, euskarari eskeiniko zizkion bere arreta nagusiak. 1940.ean bere doktorego tesia aurkeztu zuen Göttingengo unibertsitatean, *Baskisch und iberisch* lan bikaina alegia, 1940-1941.eko *Weltverkehrs Sprachen* aldizkarian *Das baskische* artikuluan aurkeztu zuena. Hartan, Schuchardten tesi vasco-iberista deuseztatu

zuen. Gerratea zela eta, askok galdutzat eman zuten, baina Karl Boudak galtzetik salbatu zuen eta 1948.eko *Eusko Jarkintza* aldizkarian agertu zen, baita ber urtean liburu euskarran Baionako Darracq baitan. Bähr-en aburuz, euskara uharte hizkuntza da, Boudak onartzen ez zuen gauza bestalde, izan ere, azken honen, tesi kaukasiarren sustatzailea baitzen. Göttingengo unibertsitatean ikasi ostean, Ipar-Alemaniar aritu zen hizkuntza modernoan irakasle. Hannoverren bereziki, non 1942.ean Erika Micharekin ezkondu baitzen. Gerratea hasi zenean, aldiz, frantses interpretari ihardun zuen, dibisio urdinean San Petersburg aldera joan arte -ez dakigu, ordea, bertan Urmeneta jauna ezagutzeko aukera aprobetxatu zuenentz-. 1944.ean Berlinen zegoen, interpretari irakasle. Hantxe hil zen, 1945.eko apirilaren 27an, oste sobietarrak hiriburu alemaniarrean sartu zirenean. *Uaño naiz xirietaz* euskaraz ondu lehenengo lana izan zen, *Euskal Etnalea*-n 1922.ean. Azkueren laguna, Euskaltzaindiaren aldizkarian parte hartu zuen behin baino gehiagotan, euskaltzain laguntzaile izateko balio zitzaiona: *Flexiones verbales de uso actual en Legazpia* -1925-, *Ostrillika eta ostadarra* -1931. ean-, *Verbos compuestos, factitivos y causales* -1933. ean- eta *Los nombres de parentesco en vascuence* -1935. ean-. Alabaina, bere lanik gehienak Parisko RIEV izparringian azaldu ziren: *Estudio sobre el verbo guipuzcoano*

eta *Sobre el nombre de plomo en vascuence* -1926. ean-, *Otra vez eslata, vallado de madera* -1927. ean-, *Los nombres vascos de la abeja, mariposa, rana y otros bichos* -1928. ean-, *Nombres de plantas en vascuence* -1929. ean-, *Alrededor de la mitología vasca, El arco iris y la vía láctea en Guipúzcoa* eta *De toponimia vasca* -1931. ean-, *Medubriga: ¿La villa de plomo?* -1933. ean-, *Aurten, geurtz, igaz eta El vasco y el camítico* -1934. ean-, eta *Nombres de animales en vascuence* -1936. ean-. Argitalpen soiltzat H. Schuchardt zana euskaraz tajutu idazki lliburra agertarazi zuen Iruñeko Euskararen Adiskideak taldearen lankidetzan 1926. ean. Hartan Gothako Hugo Schuchardt erkideaz zioena berari ere erants geniezaiokien: «Izkuntzen jakile aundienetako bat izan dala ukatu ezin ditekene da beintzat. Orri ez nagokio, baiño oraingoan: Bada Xujartek zekizkin izkuntzen artean euskera bai ongi zekiela, ta bera euskalari ta euskaltzale jatorra zalako, euskaldun guztien esker ona merezi du betiko». Euskalerrian eman zuen ikerraldian, berezko iduri eskeini zigun, baserriz baserri txirindulaz; aztertzaile fina, begi zorrotz, hizkuntzalaritza kontuez gainera, baita etnografia edota historiazko hainbat kontu aztertu zituen -esaterako, Legazpi aldeko trikuharri zenbaiten aurriak topatu zituen-, eta seguru da Barandiaranen lankide ezin hobea zatekeela gazte hil ez balitz. Ondu zituen lan gehien edizioa behiala -1986. ean- agertu zen Legazpiko Hots taldearen eskutik eta Aitor Aranak apailaturik.



etorri ahallean

Patziku Perurena

Itsaspetik otoika

LURRA AHITU AHALEAN itsasora doa euskara, paperezko ontzitan, porturik portu, mundu puxkak bilduz, nazio euskaldun paperezko bat osatu nahian edo... Hasi da betetzen, poeta gorriak esan eta bardo zuriak kantatua: «Baionatik Bilbora alua itsasoa/ igeri ez dakiena hondoraino doa». Eta hondoa jo baino lehen, igerian ikasi nahi dizu euskarak, eta ur axaleko mariposa estilo xurrian ezik, urpeko zoko ilunetan ere ekin dio murgilean, eta horratz *titanic* paperezko gurea azaldu! Sotaren Bayon itsasperatu *Batxiren arima galdua*. Eta horra zelan ikusten eban mundu arrano hau, 1914-16 aldean *Batxi* gureak: Ingelesak: «Ingeles bati ezin esan leikio inongo tokitan gauza ona dagoela, ez dau sinetsiko eta. Ez esan honeei: han geure herrian be bajagozak holako ontziak, makinak, eta abar, zuek hemen daukazu ezan lakoak. Ez deusue entzun be egingo. Holako gauzarik ez dago inon Ingalaterran baino. Heltzen diren toki guztietan beti euren herria jaso eta goraltzen dabe». Espainian igoaltsu katalanak, eta oilalur honetan be, bardintsu, euskotarrok. Munduan ez da izanen nor bere herriaz ederretsia baino jente ustelagorik. Txinatarrak: «Soka batetik tira behar bada, han datoz ehun eta hamabost gizon, eta hantxe egiten dabe hemengo hogei bostek egiten dabena. Eta kitu. Oherik be ez dabe behar, soinekorik be ez, jateko barriz arroz egosia. Non honeek baino gizon merkeagorik? Ostikada bat emonda han doa txinatar bat airean, jausten da lurrera, hiltzen da, hartu eta itsasora. Eta ez dago inori haren barri zertan emon». Itsasoko krudelkeriak aparte, ekialdeko esoterismo zaharrrak, mendebaldean beti azken orduko alternatiba lez garesti saltzen den honek, badu funtsean graziaz bape egiten ez dostan zertxubait.

Sfaxtarrak: «Herri hau dago Afrikako Aljeriako itsasertzean. Sfax herria guztiz txiroa da. Herri bi dagoz, bata europarrena eta bestea bertoko semeena. Bigarren honetan hainbat lantegi dagoz behar politik egiten dabezenak, bai burdinagaz eta bai egurragaz, baina dena behean jarrita. Errementariak, esaterako, jarrita hauspoari eragin, jarrita galda atera, jarrita mailuketan egin. Halakoxeak dira arranook». Gure jatorrak ez dizu hitzestallika ere aditu nahi, euskal itsasketariak *negrero* izan direnik. Ai gizajoa! Euskal burniola zaharretan, eliz eta dorre erakiten, zenbat moro eta esklabo aritu zen jakinen balu. Eta oraindiko gure aroegintzan, zenbat ari diren beltz haien odoleko euskaldun! Bai gauza ondradua, arraza kontua, argi egiteko denean, baina antzua hagitz, argia estaltzera datorrenean. Armeniarrak: «Aurpegikeran dira gure baserriar gehienak legez aurpegi ihar sudurluzeak. Jantzkiak be bardinak dabez, amantaldun prakak, kirruzko alkondarak harizko aleekin. Abarka artulezko txapinekin, eta honeek praka gainetik. Euren hizkera guztiz da azalekoa edo erraz egiten dena, guztia ahoagaz esan ohi dena, eta ez samagaz eta sudurragaz eta abar ingelesek eta alemanek legez. Nik behinik behinean gure arrazaren antz handia hartu neutsen armeniarrei». Almerian: «Jesarten zara kafetegi batean, han jatortuz hamar itsu, sei mantxo, lau betoker, hamazortzi atso ume txikiak lepoan dabezela. Honen hurrengo han jatortu hamaika erren oinak dardarrez dabezela, edo morroi bat bere zauriak erakusten, limosna eske, eta ez daukazu beste urteerarik, edo ok egin higuinaren higuinaz, edo jagi eta aldegin. Bazoaz beste kafetegi batera, eta osterabe, *socorro, cabayero, que etoy desfallecio*. Halatsu harrapatu digute, itsaspetik otoika, Batxiren barbaro galdua ere.

Ziria

Bitakoa bada

ARERIO GOGORRA PUTREENTZAT. AÑAMENDIKO HARTZAK JAKIEZ ALDATERA behartu ditu salak. Berriki zainzuriak jateari ekin diote, xamurragoak nonbait. Hartzarekin ez dago giro. Gainera kanpokoa da, bertako ohiturei muzin egiten dien horietakoa. Baina, eta bitakoa bada. Molde bakarra aski da.

Jose Angel Perez Nieves

☉ Karlista

«Nostalgikoak baino gehiago kixoteak gara»

Euskal Herriko Alderdi Karlistako kideak Jurramendin bilduko dira bihar eta etzi, Herrien eskubideen alde lemapean. Jose Angel Perez Nieves alderdiko idazkariordearen iritziz, euren borrokak badu oraindik zentzua, eta gehiengo ordezkatuko lukeen alderdi bilakatu nahiko lukete.



s o s l a i a

● MIKEL SAIZ

IRUÑEAN ALDERDIK DUEN EGOITZAN hartu gintuen Nieves tuterarrak. Karlisten bandera eta Nafarroakoa atzealdeko horman zituela mintzatu zen. Luze aritu zen alderdiaz eta haren borroka

■ **Herrien eskubideen alde leloa aukeratu duzue Jurramendi 98ko ekitaldietarako. Zer da defenditzen dena?**

Herriak osatzen ditugunok askeak izateko dugun eskubidea aldarrikatu nahi dugu. Hauteskundeetan erabakitzeak aukera izan, bizikidetzak hobetu... Herriak ez dituzten eskubideen alde egiten dugu.

■ **Zer zentzu du egun Alderdi Karlistaren borroka?**

Alderdi Karlistaren aldekoa bada, inolakorik ez. Gakoa ez da borroka alderdiarentzako ona edo txarra izatea, gizartearentzako ona izatea baizik. Ona bada baliozkoa zait, eta ona ez bada ez. Gertaera jakin batzuk salatzen dituen ahotsa izan nahi dugu eta, era berean, irtenbide jakin batzuk proposatzen dituen. Politikan gizartearen zenbat eta ordezkapen gehiago izan gobernatzea zailagoa da, baina

justuago gobernatzen da. Gure diruarekin eta lanarekin laguntzen ari gara gizarte eta politika benetan plurala izaten.

■ **Horren guztiaren atzean ez dago alderdi tradizionalisten esku utzi nahi ez izana?** Ez dut uste. Gertaera historiko batzuen inguruan Alderdi Karlistak tentuz jokatu du. Ez ditu azalarazi, besarkatu eta zutoihal egin. Baliteke hala jokatzeko gero

kide eta boto gehiago ekarri izana, baina gizartearentzako ez litzateke ona izanen. Are gehiago, duela bi urte proposatu genuen bakerako plan bat eta inork ez zuen kasurik egin. Guztiaren atzean arazo politiko bat dagoela onartzen ez den bitartean gaizki goaz. Gu gara joan den mendetik datorren alderdirik zaharrena eta ustez demokratikoak ziren hauteskunde batzuetan parte hartzen utzi ez ziguten bakarrak. 1976ko Jurramendiko ekitaldian saiatu ziren Karlismoa erabat deuseztatzen. Hango gertaerak izan ziren GALEko lehen ekintzak. Gure aurka neurri antidemokratikoekin borrokatu eta

gero, 76tik hona gu neurri demokratikoekin borrokatzen ari gara.

■ **Zein harreman duzue tradizionalistekin?**

Inolakorik ez. Behin hitz egin nuen batekin. Haietako zioten historia bera genuela eta nik esan nion odol amildegi bat ere bagenuela: Jurramendi 1976.

■ **Zuen burua Carlos Hugo de Borbon eta Parmaren. Jurramendin zegoen 1976an.**

Bera alderdiko presidentea zen. Jurramendin egon zen. Sinetsia nago On Karlos akatu nahi zutela, pentsatuz hura hilda alderdiarekin bukatuko zutela.

■ **1979an hauteskundeetara aurkeztu zineten On Karlosekin. Porrot izugarria izan zen. Estatu Batuetara joan zen. Baduzue harremanik harekin?**

Porrota baino gehiago hautes-

kundeen planteamendu txar bat izan zen. Nafarroan beti esan dugu On Karlosek ez zuela hautagaitza baten buru izan behar baina goiko buruek pentsatu zuten baletz. Hauteskunde ondotik, On Karlosek eta haren arrebe alderdia utzi zuten. Onartu behar da haren karisma eta baliorik gabeko Alderdi Karlista eguneratzeko apustua zaila izan zitekeela. Baina, era berean, zorionekoa izan zen hark alde egitea. Esan izan da Karlismoa monarkikoa izan dela, eta hori ez da horrela.

■ **Orain zein da zuen burua?**

Alderdikideek aukeratutako idazkari politikoak ditugu orain, besterik ez.

■ **Orduan, zer zarete, monarkikoak ala errepublikanoak?**

Berdin zaigu bata ala bestea. Monarkiak arazo filosofikoak dituen arren, ikuspegi praktikotik begiratuta erakunde monarkikoa baliteke komenigarria izatea. Dena den, beharko luke izan herri honetako pertsonaia jakin batzuen aurka borrokatu ez duena.

■ **Egun, zein da zuen indarra?** 5.000-6.000 lagun inguru ditugu. 1976koa eta gero, taldea berbera behar izan dugu. Beldu-

Jose Angel Perez Nieves Tuteran jaio zen, eta han bizi da. Ogibidez abokatua, txapel gorria ekitaldi oso berezietan bakarrik erabiltzen omen du. Iratxe Monastegian bihar Guda Karlistetako bertso eta abestiak gogoratuz egiten den ekitaldira hurbilduko den arren, ez du kantatuko. «Ez dut abesti berezirik, ez eta belarririk ere kanturako.

Jainkoak belarri bakoitzean frontoi bat eman dit», dio umoretsu.

Lanak eta alderdiak uzten dioten denboran itsasontzi maketak egiten ditu. Kasik astebururo Zumaian duen etxera joaten da. Euskara ikasten hamasei urterekin hasi zen baina oraindik hura barneratze borrokan dabil. Pentsatzen hasi da ez duela nahi bezala sekulan ikasiko. Dena den, Nafarroan Euskararen Legea aldatzeko borrokatzen jarraituko du, haren ilobek ere mendialdeko nafarrek euskaraz ikasteko duten eskubide bera izan dezaten.

■ **Oriamendi ereserkia ez ezik Internazionala ere maite du. Aukeran jarriz gero, identifikatuagoa dago Oriamendi-arekin, baina ez hura defendatzeko. Nolanahi ere, azken boladan ereserki moduan Gemikako arbola erabili dute, uste dutelako Euskal Herriko ereserki behar lukeela izan.**

rragatik edo Konstituzioaren aurrean alderdiak irizpide jakin batzuk mantendu izanagatik askok alde egin zuten. Guztiak irekitako alderdi bat egin nahi dugu.

■ **Ez zaizu iruditzen nostalgiko talde bat zaretela?**

Nola begiratzen diozun. Egia da atzera begiratzen dugula, baina aurrera begira ikasteko. Ez dut uste iragana oroitzeagatik nostalgiko batzuk garenik. Alderdi Kar-

lista ez da kide arrotzez orain baino garbiago egon. Nostalgikoak baino gehiago, kixoteak gara.

■ **Hurrengo hauteskundeetara aurkeztuko zarete?**

Bai. Udal hauteskundeetan aurkeztuko gara. Ez alderdi bezala, baizik eta hauteskunde talde moduan. Gure kezka herria da, eta ez alderdia.

→ Irene Arrizurieta

BEKARIO!

patxi@earthling.net



STOP!
DANGER!
ACHTUNG!
KASU!



Nafar Kronika

Kike Diez de Ultzurrun

Caballeroren hilketaren gainean

Errokariko hartzaren ez ohiko portaeraz idatzi nahi baina ETaren ohiko bideak pertsona bati bizia urratu izanaren albistea jaso dut. Hildakoa nor eta Tomas Caballero jauna, hautetsia, Iruñeko zinegotzia. Beraz, asteazken eguerdia da. Ondotik gaitzespen oharra, hiritarren kale bilkurak eta adierazpen gogorak (barne gertatua Euskal Herria eta Espainiako Estatuen arteko «konfliktoaren» ondorio izan dela bezalako hitz aspergarriak) eta «mendeku» hots gaitzesgarri eta arriskutsuak izanen dira gertakizun eta erantzunkizun. Bitartean, atsekabea nagusi. Ez dakit zergatik baina halabeharra etorri zait burura. Atxagak ipuin batean izkribatutakoa, akabera tragikoa duena. Bertze hilketa honen harira, ixtant batean, gogoratutakoen artean, HBk Caballeroren aurka aurkeztutako kereila, ondotik epaileak artxibatutakoa, ez dela baliatzen ari ETak bertan behera «espetxeen frentea» utzi izana, gizartea behin eta berriz erakusten ari da presoak Euskal Herrian nahi dituela, nonahi plataformak sortzen ari dira preso-erregimen behineko askatasunaren alde eta PPren Gobernua axolagabe jokatzeko ari dela eta azken mezu horiek hedatzen dituztenek erraten ez dituztenak, hots, gizarteak aspaldian erran diola ETari hilketaren bidea uzteko eta ez dezatela plataforma horretako nire sinadura, behintzat, erabili Tomas Caballeroren erailketa justifikatzeko.

gure aukerak

KONTZERTUAK

- **Iruñea:** Donegal tabernan Half Foot Outside taldeak joko du datorren ostegunean, hilak 14, 21:00etan.
- **Zangoza:** Nafarroa Oinezeko ekitaldien barruan kontzertua eskainiko du Peñafloida Kaperak gaur, 21:00etan, Enrique Labrit zinematokian. Sarrerak 400 pezeta balio du.

ERAKUSKETAK

- **Tafalla:** Maiatzaren 16ra arte *Munduko intsektuak* erakusketak dago zabalik.
- **Zizur Nagusia:** Bello Ormaetxearen lanak ikusteko aukera dago Kultur Etxean maiatzaren 17a arte.

BERTSOAK

- **Iruñea:** Jon Sarasua eta Xabier Euzkitzek triki-bertso saioa eskainiko dute bihar, Gaiarre antzokian.
- **Berrota:** Joxe Lizaso eta Joxe Agirre ariko dira bertsoan bihar, 22:00etan, Hegoalde elkartearen.
- **Sara:** Urrats Gaua dela eta, Maialen Lujanbio, Jon Maia eta J.M. Irazu bertsoan ariko dira bihar gauaz.

DANTZA

- **Zizur Nagusia:** Barcelona Adictos taldeak *Todavía es muy pronto* break-dance ikuskizuna eskainiko du gaur, 22:00etan, Kultur Etxean. Sarrerak 600 pezeta balio du.
- **Iruñea:** IT Dansa taldeak *Violeta II, Complices, Via Durga* eta *Jardi tancat* ikuskizunak eskainiko ditu datorren asteazkenean, 21:00etan, Gaiarre antzokian. Hamar dantzariak Nacho Duatoren, Tony Fabrerren, Jennifer Hannaren eta Ramon Ollerren koreografiak dantzatu dituzte.

BESTELAKOAK

- **Iruñea:** Euskalkien mapa berriez ariko da Koldo Zuazo EHUko Dialektologia irakaslea datorren asteazkenean, hilak 13, 20:00etan..
- **Lekunberri:** Joantxenea base-riaren aldeko herri kirol jaialdia egingen da etzi,

12:00etatik aurrera. Azikoran ariko dira: Larretxea-Arria bikotea Arrospide eta Olasagastiren aurka, Iñaki Perurena, Eneke Bildarraz, Esteban Saralegi, Patxi Astibia, Mikel Iturralde eta Nartxi Saralegi. Harri jasotzen, Inaxio Perurena eta Mikel Saralegi ariko dira.

- **Tafalla:** Virginia Alvira kontu kontari ariko da bihar, Aita Calatayud Pasealekuan, 18:00etan. Trikiti doinuak lagunduko du ekitaldia.
- **Iruñea:** Xesus Vazquezek *El artista en su practica* hitzaldia eskainiko du datorren asteartean, 20:00etan, Iruñeko Kutxan (Armada Etorbidea).

Harri Fiction

Urdirzo-Lacostini



Guk edan egiten dugu.
Gainerakoa, izadiak.

TXOKO

Eta utzi erauntsiak katilu zikinak garbi ditzala.

